

Irabazi xederik gabeko entitateentzako 2016ko diru laguntzak emateko **behin-behineko ebazpen proposamena**  
**Propuesta de resolución provisional** de concesión de subvenciones 2016 a entidades sin ánimo de lucro

### Organo Instrukzio Egilea

Diru laguntza deialdi honetako oinarri arautzaileen III atalean aurre ikusten den bezala, Balorazio Batzordeak 2016ko maiatzaren 3an bilduta, Organo Izapidegileak egin duen eskaeren ebaluazioa aztertuta, ondorengo txostena egin du:

**2.1. Eranskinean** jasotzen diren diru laguntzetarako 18 elkarte ezberdin aurkeztu dira eta guztira 19 eskaera aurkeztu dituzte.

Hauetatik 9 eskaera ez dira onartuak izan, deialdi honetan sartzen ez diren gaietarako edo baldintzak betetzen ez dituztelako eskaerak izateagatik.

9 proiektu hauetatik:

- 4 (Agata, Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa, C.D. IrutxuloSub, Jam espresio kulturalaren promozioa), beste diru laguntza lerro batzuetara bideratu dira, horien baitan aztertu eta baloratu ditzaten, deialdi honen baldintzak bete ditzazketelakoan.
- 3 (Lleno de Naranjas, Emanhar, Stella Maris), ez dira diru laguntza deialdi honen xede.
- 2 (Uliako AE, Urumea Ibaia), 2015ean diruz lagundu ziren.

Gelditzen diren beste 10 proiektuak aztertuak izan dira.

Diru laguntzen eskabideak baloratzeko irizpideak ondokoak izan dira:

1 Fasea – Proiektuaren bideragarritasuna: fase honetan proiektua bideragarri den zehaztuko da. Fase honek egingarriak diren eta egingarriak ez diren proiektuak berezituko ditu, baina ez da baliagarri izango lagungarri den diru kopurua kuantifikatzeko.

### Órgano Instructor

La Comisión de Valoración, prevista en el apartado III de las Bases reguladoras, reunida en sesión celebrada el día 3 de mayo de 2016, analizada la evaluación de las solicitudes elaborada por el órgano instructor, emite el siguiente informe:

Se han presentado 19 proyectos de 18 entidades diferentes a las subvenciones que se recogen en el **anexo 2.1**.

De éstos, 9 solicitudes han sido denegadas, por ser solicitudes que no responden al objeto o a las condiciones de esta convocatoria.

De estos 9 proyectos:

- De éstas, 4 solicitudes (Agata, Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa, C.D. IrutxuloSub, Jam Espresio kulturalaren promozioa) han sido derivadas a otras líneas de subvención para su análisis y evaluación, previendo que pueden cumplir los requisitos de sus convocatorias.
- 3 solicitudes (Lleno de naranjas, Emanhar, Stella Maris), por no ser objeto de esta convocatoria.
- 2 solicitudes (Uliako AE, Urumea Ibaia AE), se subvencionaron en 2015.

Los 10 proyectos restantes han sido analizados.

Los criterios para la valoración de las solicitudes han sido los siguientes:

Fase 1 - Viabilidad del proyecto: en esta fase se determinará que el proyecto es realizable. Esta fase discriminará los proyectos realizables y no realizables, pero no servirá para la cuantificación del importe subvencionable.

2 Fasea – Zenbatekoa zehazteko kontuan hartuko diren alderdiak:

1) Diagnostikoan, diseinuan, exekuzioan edota beraren ebaluazioan jendearen parte hartzea bultzatzen duen, 26 puntu arte:

- Beharra antzeman eta misioa zehaztea, gehienez 6.
- Diagnostiko, proposamen edo jarduera konpromisoak zehaztea, gehienez 6.
- Entitate sustatzaitik kanpoko eragileak inplikatzeko, gehienez 2.
- Aniztasun diskurtsiboa bilatzea, gehienez 2.
- Mugak eta jokoaren arauak definitzea, gehienez 2.
- Partaidetza prozesu baten oinarritzko faseak kontuan hartzea, gehienez 2.
- Egokitzeko gaitasuna, gehienez 2.
- Kaltetuen, interesatuen edota inplikaturako eragileen artean informazio eta komunikazioaren transferentzia sustatzea, gehienez 2.
- Jarraipena eta ebaluazioa, gehienez 2.

2) Maila guztietan sarean lan egitea eta parte hartzen duten guztiek erantzukizuna beren gain hartzea bultzatzea, 10 puntu arte:

- Sarean lan egitea: auzokide edo beste eragile eta erakundeekin erlazioak izatea, gehienez 5.
- Prozesuan inplikaturako eragileen arteko erantzukizuna, gehienez 5.

3) Gizatasuna, herritarren arteko elkarrizketa eta elkar ulermena sustatzen duten partaidetza-jarduerak ezartzea, 6 puntu arte:

- Behar handiak dituzten edota arriskuan dauden taldeak prozesuan barneratzea, gehienez 3.
- Jarrera eta diskurtso desberdinen arteko topaketa sustatzea, gehienez 3.

4) Komunikazio Plana, 10 puntu arte:

Fase 2 - Aspectos a considerar para la determinación del importe:

1) Que promueva la participación social en el diagnóstico, diseño, ejecución y/o evaluación del mismo, hasta 26 puntos:

- Detecta necesidad y fija misión, 6 max.
- Fija compromisos de diagnóstico, propuestas o actuaciones, 6 max.
- Implica a agentes externos a la entidad promotora, 2 max.
- Busca la diversidad discursiva, 2 max.
- Define los límites y reglas de juego, 2 max.
- Contempla las fases básicas de un proceso de participación, 2 max.
- Capacidad de adaptación, 2 max.
- Promueve la transferencia de información y comunicación entre los agentes implicados, la ciudadanía interesada y/o los afectados, 2 max.
- Seguimiento y evaluación, 2 max.

2) Que promueva el trabajo en red a todos los niveles y la corresponsabilización de todos los implicados, hasta 10 puntos:

- Trabajo en red: relaciones con vecindario, otras entidades e instituciones, 5 max.
- Corresponsabilidad entre los agentes implicados en el proceso, 5 max.

3) Que aplique prácticas participativas que favorezcan el civismo y el diálogo y entendimiento entre la ciudadanía, hasta 6 puntos:

- Incluye a grupos desfavorecidos y/o vulnerables en el proceso, 3 max.
- Fomenta el encuentro entre posturas y discursos diferentes, 3 max.

4) Plan de comunicación, hasta 10 puntos:

- Herritarrei irekitako bilera eta ekimen deialdietarako komunikazioa, gehienez 2.
  - Prozesuaren garapenaren informazio bilketa eta komunikazioa, gehienez 2.
  - Parte hartzaileei eta talde eragileei komunikazioa zabaltzea, gehienez 2.
  - Deboluzioa, gehienez 2.
  - Prozesuaren sozializazioa, gehienez 2.
- 5) Gizabidezko balio hauek bultzatzen diren: ingurunea, ingurumena eta gune publikoak errespetatu eta haiekiko konpromisoak hartzea, 6 puntu arte.
- 6) Dauden baliabideen erabilera, 6 puntu arte.
- 7) Erakundeak proiekturako lortutako finantza baliabideak eta eskatutakoaren eta beste baliabide batzuen arteko proportzioa, 8 puntu arte:
- % 10 arte, gehienez 2.
  - % 20 arte, gehienez 4.
  - % 30 arte, gehienez 6.
  - % 40 arte, gehienez 8.
- 8) Urtean zehar programa zabaltzea, 6 puntu arte:
- Urtean zehar planifikatuta egotea, gehienez 3.
  - Ekimenak hainbat hilabetetan izatea, gehienez 3.
- 9) Euskararen sustapena, 3 puntu arte:
- Eskaera eta proiektu dokumentua euskaraz egitea, puntu 1.
  - Banatutako material didaktikoak eta komunikazio euskarrietan euskara lehenestea, puntu 1.
  - Deialdi irekietan euskara lehenestea, puntu 1.
- Comunicación a la ciudadanía de las reuniones abiertas y de las convocatorias de actividad, 2 max.
  - Recogida de la información y comunicación del desarrollo del proceso, 2 max.
  - Difusión de la comunicación a las personas y agentes que participan, 2 max.
  - Devolución, 2 max.
  - Socialización del proceso, 2 max.
- 5) Que promocióne los valores cívicos de respeto y compromiso con el entorno, medio ambiente y los espacios públicos, hasta 6 puntos.
- 6) Que aproveche recursos existentes, hasta 6 puntos.
- 7) Los recursos financieros que aporta la entidad al proyecto y proporción de lo solicitado respecto de otros medios, hasta 8 puntos:
- Hasta 10%, 2 max.
  - Hasta 20%, 4 max.
  - Hasta 30%, 6 max.
  - Hasta 40%, 8 max.
- 8) Que sea una programación estable a lo largo del año, hasta 6 puntos:
- Que esté planificada a lo largo del año, 3 max.
  - Acciones en diferentes meses, 3 max.
- 9) Que promueva la utilización del euskera, hasta 3 puntos:
- Realizar la solicitud y el documento del proyecto en euskera, 1 punto.
  - Que los materiales didácticos distribuidos y los soportes comunicativos prioricen el euskera, 1 punto.
  - Que en las convocatorias abiertas se priorice el euskera, 1 punto.

10) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzea, 3 puntu arte:

- Entitate eskatzaileak genero perspektiba integratua izatea barneko lanean eta egituran, puntu 1.
- Datu segregatuak jasotzea, puntu 1.
- Proposamen eta ekimenetan gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasunaren sustapen bitartekoak kontutan hartzea, puntu 1.

11) Berritzailea izatea, 4 puntu arte:

- Proposatutako ekimenen originaltasuna eta helburuekiko egokitasuna, gehienez 2.
- IKT-ak erabiltzea, gehienez 2.

12) Proiektuaren errepresentatibitatea eta gizarte proiektzioa, 6 puntu arte:

- Proposatutako gaiari dagokionez, gehienez 2.
- Auzoari dagokionez, gehienez 2.
- Hiririari dagokionez, gehienez 2.

13) Proiektuaren kalitatea, 6 puntu arte:

- Edukiari dagokionez, partaidetza prozesuen fase desberdinetako informazioa jasota egotea, gehienez 3.
- Koherentzia antzemandako beharren, finkatutako helburuen, proposatutako ekimenen eta zehaztutako aurrekontuen artean, gehienez 3.

Diru laguntzak emateko zehaztutako aurrekontu osoa urteko proiektuei esleitutako puntu guztien baturaren artean zatituko da eta horrela puntu bakoitzaren balioa aterako zaigu. Puntuaren balioak, proiektu bakoitzari esleitutako puntuez biderkatu ondoren, zehaztuko du bakoitzari emango zaion diru kopurua.

3 fasea - Aurreko balorazio fasean %100ean diruz lagundu ez diren proiektuen balorazio

10) Que promueva la igualdad entre hombres y mujeres, hasta 3 puntos:

- Que la entidad solicitante tenga integrada la perspectiva de género en su trabajo interno y en su estructura, 1 punto.
- Recoger datos segregados, 1 punto.
- Tener en cuenta los mecanismos para la promoción de la igualdad entre hombres y mujeres en las propuestas y acciones, 1 punto.

11) Que tenga carácter innovador, hasta 4 puntos:

- Originalidad e idoneidad de las acciones propuestas respecto a los objetivos, 2 max.
- Aplicación de TIC, 2 max.

12) La representación y proyección social, hasta 6 puntos:

- Sobre el tema sustantivo propuesto, 2 max.
- Sobre el barrio, 2 max.
- Sobre la ciudad, 2 max.

13) Calidad del proyecto, hasta 6 puntos:

- En cuanto a los contenidos, que se recoga la información de las diferentes fases de un proceso participativo, 3 max.
- Coherencia entre las necesidades detectadas, los objetivos fijados, las acciones propuestas y los presupuestos reflejados, 3 max.

El total del presupuesto destinado a este anexo dividido entre la suma de puntos adjudicados a todos los proyectos o programas anuales subvencionables, fijará el valor de cada punto. El valor equivalente a un punto, multiplicado por los puntos con los que se ha valorado cada proyecto, determinará la cuantía de la subvención otorgada.

Fase 3 - Criterios de valoración hasta agotar el crédito remanente entre los proyectos que no hayan

irizpideak kreditu soberakina agortu arte.

1) Baloratutako gainerako proiektuen eremu geografiko osagarriak hartzea, 10 puntu.

2) Baloratutako gainerako proiektuetan landu ez diren gaiak jorratzea, 10 puntu.

3) Auzo bat baino gehiagotan garatzea, 10 puntu.

2. faseko kreditu soberakina 3. faseko balorazio irizpideetan oinarrituta, emandako puntuen batuketaren artean zatituko da eta honek puntu bakoitzaren balorea zehaztuko du. Puntuaren baloreak, proiektuak lortutako puntuez biderkatu ondoren, zehaztuko du 3. fasean banatutako diru laguntza kopurua.

Aztertutako 10 proiektuetatik, 2 ez dira gauzagarri zat hartu:

- Amarabai, *Amara Bizirik*: espedientean jasotako informazioaren arabera, ez dago koherentziarik deskribapen orokor, helburu, ekintza eta aurrekontuaren artean. Proiektua baino asmoa da.
- Ulialde, *Zure Ahotsa*: ez dago gai sustantiborik, ezta detektatutako beharrik ere. Ez dago koherentziarik deskribapen orokor, helburu, ekintza eta aurrekontuaren artean.

Lehenengo fasea gainditu duten proiektuekin, aurkeztutako aurrekontuetatik Oinarri Arautzaileen arabera diruz lagungarri ez diren gastuak kendu egin dira, eta horrela diruz lagungarri den kopurua zehaztu da.

Beste 8 proiektuak bideragarri dira, honela 2. fasean zehaztutako irizpideen baitan baloratuak izateko.

Puntuatutako 8 proiektuek 372 puntu batzen dituzte orotara; aurrekontua 27.722€ izanda, **puntuaren balorea 74,52€** izan da.

sido subvencionados al 100% en la fase anterior de valoración.

1) Que cubran ámbitos geográficos complementarios al resto de solicitudes valoradas, 10 puntos.

2) Que aborden temáticas diferentes al resto de solicitudes valoradas, 10 puntos.

3) Que cubran más de un barrio, 10 puntos.

El total del remanente sobrante de la fase 2 dividido entre la suma de los puntos adjudicados conforme a los criterios de esta fase 3 fijará el valor de cada punto. El valor equivalente a un punto, multiplicado por los puntos con los que se ha valorado cada proyecto, determinará la cuantía de la subvención otorgada en esta fase 3.

De los 10 proyectos analizados, 2 no son viables:

- Amarabai, *Amara Bizirik*: Según la información que obra en el expediente, no hay coherencia entre la descripción general, los objetivos, las actividades y el presupuesto. Más que un proyecto, es una declaración de intenciones.
- Ulialde, *Zure Ahotsa*: No hay tema sustantivo, tampoco una necesidad detectada. No hay coherencia entre la descripción general, los objetivos, las actividades y el presupuesto.

De aquellos que han superado la 1ª fase, tras eliminar los gastos no subvencionables que se recogen en las propias bases reguladoras, se han fijado los gastos subvencionables de cada proyecto.

Los otros 8 proyectos analizados resultan viables, pasando a ser valorados según los criterios de la fase 2 de valoración.

Los 8 proyectos puntuados suman un total de 372 puntos. Siendo el presupuesto de 27.722€, el **valor punto** ha resultado **74,52€**.

Aurretik azaldutako atal bakoitzean jasotako puntuazio eta balorazio osoa proiektu bakoitzaren espedientean jasota dago, baita diruz lagungarri diren gastuak eta diruz lagungarri ez direnak ere.

Laburbilduz, ondokoa aipa dezakegu diruz lagundutako proiektuen artean:

8 proiektuetatik 7 eskatutakoa edo diruz lagungarri diren gastuen % 100 jasoko dute eta besteak eskatutakoaren % 75a.

Lurraldetasunari dagokionez, 3 hiri mailakoak dira, 2 Altzakoak eta bana ondoko auzoetan: Igeldo, Txomin Enea eta Loiolako Erriberetan.

Gaiari dagokionez:

- 2 proiektu (Lanberri eta Osteguna) auzo komunitatea dinamizatzeko IKT-en edo aldizkarien bitartez oinarritutakoak dira.
- 1 (Elkartu) gaikako partaidetza proiektua da: ezintasun fisikoa duten pertsonen autonomia jorratuko du.
- 2k (Emanhar eta Eusko Ikaskuntza) herritarren bizi kalitatea hobetzeko eta etorkizuneko eskenatokiak eta erronkak detektatzeko partaidetza proiektuak dira, biak metodologi zehaztuekin, Open Space eta Visual Thinking hurrenez hurren.
- 1ek (Igeldoko Herri Kontseilua) bere eremuan komunitatearen partaidetza integrala planteatzen du.
- 2k (M-Etxea eta Herripe) hirigintzari lotuta dauden prozesuak dira. M-Etxeak planifikaziotik hasita puntu kritikoaren eraldaketarainoko prozesu integrala planteatzen du eta Herripek hirigintza orokorrari buruzko diagnostia Herrera auzoan.

Eta espedientearen arabera, organo izapidegile honek honako behin-behineko ebazpen proposamena egiten du:

Todo lo mencionado en los apartados anteriores sobre la puntuación y la valoración está recogido en el expediente de cada proyecto, así como los gastos subvencionables y no subvencionables.

En resumen, mencionamos lo siguiente entre los proyectos subvencionados:

De los 8 proyectos 7 han recibido lo solicitado o el 100% del gasto subvencionable y 1 el 75%.

Respecto a la territorialidad del proyecto, 3 son de ámbito ciudad, otros 2 de Alza y uno en cada uno de los siguientes barrios: Igeldo, Txomin Enea y Riberas de Loiola.

Respecto al tema:

- 2 proyectos (Lanberri y Osteguna) están basados en dinamizar y fortalecer la comunidad por medio de TIC o revistas.
- 1 (Elkartu) es un proyecto participativo en torno al siguiente tema: trabajará sobre la mejora de la autonomía de las personas con discapacidad física.
- 2 (Emanhar y Eusko Ikaskuntza) son proyectos participativos que pretenden la mejora de la calidad de vida de la ciudadanía por medio de escenarios de futuro y detección de retos, ambos con metodologías definidas, Open Space y Visual Thinking respectivamente.
- 1 (Igeldoko Herri Kontseilua) propone una participación integral de la comunidad en su ámbito de actuación.
- 2 (M-Etxea y Herripe) son proyectos relacionados con el Urbanismo. M-Etxea plantea un proceso integral de transformación de un punto crítico desde la planificación hasta la ejecución y Herripe un diagnóstico general del urbanismo en el barrio de Herrera.

A la vista de cada expediente, este órgano instructor formula la siguiente:

## BEHIN-BEHINEKO EBAZPEN PROPOSAMENA

## PROPUESTA DE RESOLUCIÓN PROVISIONAL

1.- Ondoren azaltzen diren entitateei taulan azaltzen diren diru laguntzak **ematea**, 2016ko urtarrilaren 29ko 18 zb. GAOn argitaratutako deialdiaren oinarrien 2.1 eranskinaren arabera, denon intereseko gaietan herritarren parte hartzea sustatzen duten proiektuak:

1.- **Conceder** a las entidades que a continuación se relacionan y por los importes que se indican, subvención conforme a lo previsto en el anexo 2.1 de las Bases de la convocatoria publicadas en el BOG nº 18 de fecha 29 de Enero de 2016 relativo a proyectos que fomenten y desarrollen la participación ciudadana en los asuntos de interés público:

Entitatea / Entidad	IFZ / CIF	Proiektua / Proyecto	Lortutako puntuak / Puntos obtenidos	Diru laguntza kopurua / Importe Subvención
Elkartu	G20092326	Participación ciudadana como medio de promoción de la autonomía personal de las personas con discapacidad	47	3.408€
Emanhar Gizarte Elkartea	G75123554	Topalgune irekia	60	1.727€
Eusko Ikaskuntza	G20408639	La Sociedad que queremos, la Sociedad que tendremos	55	4.098,68€
Herripe	G20187746	Estudio general urbanístico de Herrera	23	1.700€
Igeldoko Herri Kontseilua	G20578258	2016ko Igeldoko egitasmoa	52	3.000€
Lanberri	G20208799	Txomin-Eneako weba	33	700€
M-Etxea	G75021717	Utokiak	72	2.500€
Osteguna Auzo Elkartea	G20491767	Revista Osteguna	30	2.100€

2.- Oinarrien arabera, honako **eskaerak baztertea** ondoren azaltzen diren arrazoiak azalduz:

2.- **Denegar**, de conformidad con las bases reguladoras, las solicitudes siguientes, por los motivos que se indican en cada caso:

Entitatea / Entidad	IFZ / CIF	Proiektua / Proyecto	Arrazoa	Motivo
AGATA	G20583035	Difusión y participación a través del tango	Donostia Kulturara bideratua interesdunak eskatuta.	Derivado a Donostia Kultura a petición del/a Interesado/a.
Amarabai Udalgintza Elkartea	G20803284	Amara Bizirik	Ez da gauzagarria. Ez dago koherentziarik deskribapen orokor, helburu, ekintza eta aurrekontuaren artean.	No es viable. No hay coherencia entre la descripción general, los objetivos, las actividades y el presupuesto.
Emanhar Gizarte Elkartea	G75123554	Yinnigana	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Proiektua ez da interes publikoko gai buruzkoa, ezta partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak gauzatzeko ekimena ere. Ez du auzoetako bizi kalitatea hobetzeko xederik, ezta udal politika publikoen erabakitze eta garapen prozesuetan eragiteko	No es objeto de esta convocatoria de subvención. El proyecto no responde a un asunto de interés público, ni a una acción para llevar a cabo los derechos políticos de participación colectiva. Tampoco busca mejorar la calidad de vida de los barrios, ni incidir en los procesos de decisión y construcción de

			aukerarik ere.	políticas públicas municipales.
<b>Irutxulosub CD</b>	G75130427	Itsas zaborra out	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea Ingurumenera bideratu da.	No es objeto de esta convocatoria de subvención, pero el expediente ha sido derivado a Medio Ambiente.
<b>Jam Espresso Kulturalaren Promozioa</b>	G20940441	KA / Kultura Alternatiboa	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea Donostia Kulturara bideratu da.	No es objeto de esta convocatoria de subvención, pero el expediente ha sido derivado a Donostia Kultura
<b>Lleno de Naranjas</b>	G75066159	¿A quien damos el premio naranja? (...)	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Proiektua ez da interes publikoko gaiei buruzkoa, ezta partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak gauzatzeko ekimena ere. Ez du auzoetako bizi kalitatea hobetzeko xederik, ezta udal politika publikoen erabakitze eta garapen prozesuetan eragiteko aukerarik ere.	No es objeto de esta convocatoria de subvención. El proyecto no responde a un asunto de interés público, ni a una acción para llevar a cabo los derechos políticos de participación colectiva. Tampoco busca mejorar la calidad de vida de los barrios, ni incidir en los procesos de decisión y construcción de políticas públicas municipales.
<b>Sociedad Fotográfica de Gipuzkoa</b>	G20068649	Argazkiherria	Ez da diru laguntza deialdi honen xede, baina espedientea Donostia Kulturara bideratu da.	No es objeto de esta convocatoria de subvención, pero el expediente ha sido derivado a Donostia Kultura.
<b>Stella Maris Pasaia</b>	G75131011	Atención primaria a la gente de mar en lo social y en lo cultural	Ez da diru laguntza deialdi honen xede. Proiektua ez da interes publikoko gaiei buruzkoa, ezta partaidetza kolektiboaren eskubide politikoak gauzatzeko ekimena ere. Ez du auzoetako bizi kalitatea hobetzeko xederik, ezta udal politika publikoen erabakitze eta garapen prozesuetan eragiteko aukerarik ere.	No es objeto de esta convocatoria de subvención. El proyecto no responde a un asunto de interés público, ni a una acción para llevar a cabo los derechos políticos de participación colectiva. Tampoco busca mejorar la calidad de vida de los barrios, ni incidir en los procesos de decisión y construcción de políticas públicas municipales.
<b>Uliako Auzo Elkarte</b>	G20066692	Donostiarrok nahi dugun Uli	2015ean diruz lagundutako ekimenak. Bestalde, Partaidetza ez dago egituratua.	Acciones subvencionadas en 2015. Por otro lado, la participación no está planificada.
<b>Ulialde</b>	G75100727	Zure Ahotsa	Ez dago gai sustantiborik, ezta detektatutako beharrik ere. Ez dago koherentziarik deskribapen orokor, helburu, ekintza eta aurrekontuaren artean.	No hay tema sustantivo, tampoco una necesidad detectada. No hay coherencia entre la descripción general, los objetivos, las actividades y el presupuesto.
<b>Urumea Ibaia Auzo Elkarte</b>	G20889051	Lanak bukatu-Loiola existe	2015ean diruz lagundutako ekimenak.	Acciones subvencionadas en 2015.



**3.- Gastua honako kontu sailari eranstea 481.01.**

**3.- Imputar el gasto a la partida 481.01.**

**4.- 2.1. eranskinetako aurrekontuaren soberakina, 8.488,32€, 2.2. eranskinetako deialdira gehitzea, berariazko oinarri hauetako 8. artikulua aurreikusten duen moduan.**

**4.- Acrecentar el importe de la convocatoria del anexo 2.2., 8.488,32€, con el sobrante del presupuesto del presente anexo, regulado en el artículo 8 de las presentes bases.**

**5.- Behin-behineko ebazpena** Udaleko Web gunean eta udal iragarki-oholean **argitaratzea**, interesatuta dauden entitateei jakinaraztea eta alegazioak egiteko hamar eguneko epea ematea, honakoa publikatu eta gero.

**5.- Publicar la presente resolución provisional** para su notificación a las entidades interesadas en la página web del Ayuntamiento y en el tablón de anuncios municipal y conceder un plazo de 10 días, a partir de su publicación, para presentar alegaciones.

Ebazpen honen argitalpen data iragarki taulan:  
2016ko maiatzaren 4an.

Fecha de colocación de la presente resolución en el Tablón de Anuncios: el 4 de mayo de 2016.

Donostia, 2016ko maiatzaren 3a.

San Sebastián, 3 de mayo de 2016.

Organo instrukzio egilea / Organo instructor

  
Santxo Leizaola  
Herri Partaidetza Zerbitzuko Teknikaria